

pergolari

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2011ko ekaina / 5. zenbakia



**Ikastola Eguna,
sormenaren festa!**

Pergolako oroitzapenak

Herri Ikastolako maisu jubilatua bat nauzue. Herri Ikastolan ere jendea jubilatzen da. Horrek esan nahi du ez naizela gaurkoxea. Duela urte batzuk Orioko Ikastolan ziharduen irakasle ohia. Ikastolaren hastapenetan bere aletxoa ipintzen saiatu zena, eta ikastolaren gazi-gozoek bizitzea tokatu zitzaiona. Ordukoentzat ezaguna, ezagunegia agian. Gaurkoentzat ezezaguna. Egunero pasieran ikusten duten jubilatua. Baina, guztien gainetik, ikastola bihotz barnean daramana.

Ikastola eta irakaskuntza izan dira nire bizitzaren ardatzak. Mila oroitzapen ditut gorderik bihotzean, frontoiko aldapako *unibertsitatean* irakasle katedradun egin nindutenetik Zaragueta ikastetxe zaharrean jubilatua nintzen arte. Bizipen gozoak eta gaziak ere bai. Alaiak direneta pausatu gaitezen gaurkoan.

Haurren hezkuntza familian, eskolan eta gizartean oinarritzen da. Hiru zutabe hauek izan ditu euskarri Orioko Ikastolak.

Gurasoen partaidetza ikastolaren proiektuan, memento on eta txarretan euren lankidetzak eskainiz. Gogoan ditut, Zaragueta eskuratzean, bertan egin behar izan ziren txukunketa-lanak; gurasoen kontura joan zen auzolana. Zenbat laguntza-festa, tonbola, antzerki-emanaldi...

Irakasle taldearen saiakera, irakaskuntza profesionalizatu eta hobetzeko; beti ikaslearen hurbil egonez, heziketa integral baten baitan.

Ez ditut ahazten ikastola legeztatu zen garaia, eta DBH martxan jarri zen urtea. Emankortasunaren seinale argia.

Eta, azkenik, gizartea, herria. Orioko guraso gehienek ikastolaren aldeko hautua egin baitute.

Azken urte hauetan ikastola gogor erasotua izan den arren, izan bihotz eta ez etsi, barealdia helduko zaigu-eta.

Demetrio



Sare sozialak

Gaur egun geroz eta gehiago erabiltzen dira sare sozialak: Twentia, Facebooka, Twitterra... Egia da horiek ez direla egokiak adin txikikoentzat, baina oso erraza denez adinaren inguruan gezurra esatea, egun edozeinek erabil ditzake. Esaterako, badakigu 10-12 urte dituzten ia guztiek, guztiak ez esateagatik, jada badutela konturen bat irekita, sarean ibili ahal izateko.

Begi bistakoa da gurasoak beldur direla sare sozialekin, eta ulertzekoa da; izan ere, gurasoei ez zaie gustatzen beren seme-alaben argazkiak edozeinen eskura egotea interneten. Hori, ordea, ez da guztiz zuzena. Zeren pribatutasuna gordetzeko aukera badago sarean; hau da, argazkiak igoz gero, norberak hauta dezake lagunentzat nahiz edozeinentzat ikusgai jarri ala ez.

Bestalde, cyberbullingari (teknologia berrien bidez adingabekoen jazarpena) buruz ere hitzaldi asko jaso dituzte gurasoek. Nahiz eta egia izan horrelako kasuak badirela, ez da ohikoena, oso portzentaje txikian ematen baitira.

Sare sozialek, ordea, ez dituzte alde txarrak bakarrik. Adibidez, balio dute urrutiko edota asko ikusten ez dituzun lagunekin harremana ez galtzeko. Baita ere, mugikorretik deitzen ibili beharrean, sarearen bidez doan komunikaziteke zure lagunekin.

Hau guztia esan ondoren, espero dugu gurasoen pentsamendua zertxobait aldatuko dela. Eta sare sozialei buruzko hitzaldietan, horien alde txarrak horrenbeste azpimarratu ordez, onak bilatzen ere saiatuko direla, bat baino gehiago dituzte-eta.

DBH-4ko ikasleak



Martxoaren 18an, Errikotxiak bertso musikatuak abestu zituen ikastolako aretoan.

Eragileak ikastolarekin bat eginda

Hitzarmena sinatzearen harira herriko eragileek ikastolari eman nahi izan zioten sostengua dela-eta, martxoko asteburuak ekitaldi bete ziren herrian.

Heldu, Harribil, Idoia Etxeberria, Errikotxia, Pilota Elkartea, Talai Mendi, Txurumuski, Arkupe, Gaztetxea eta Elkartetxea, Galtzarri, Balea, Aldapa, Elizpe, Arkaizpe zein Gure Etxea elkartetako hainbat bazkide izan genituen ekimen guztien antolatzaileak. Giro ona eta partaidetza handia nagusi ziren ekitaldietan.

Martxoaren 12an, esaterako, jendez bete zen ikastolako plazola. Haurrentzako herri kirolak, dantzariak, harri-jasotzaileak eta giza proba ikusteko parada izan genuen. Protagonista, ordea, Idoia Etxeberria izan zen, 140 kiloko harria bi aldiz jaso, eta marka berria ezarri zuenean.

Martxoaren 19an, pilota-partidez gozatu genuen frontoian. Hurrengo egunean, igandearekin, bi rappel ikusgarri zintzilikatu zituzten Talai Mendikoek; Txurumuskik plazan jolasak antolatu, eta Arkupekoek hamaiketako goxoa eskaini zuten bitartean.

Martxoko azken larunbatean, frontoian herri bazkari bikaina dastatu ondoren, gaztetxean Sor-kunen kontzertuaz gozatu ahal izan genuen.

Ikastolako guraso ohia naiz ohore horren jabe eta Orio ez det ikusten Herri Ikastola gabe. Urteetan zehar lan isilean hainbeste guraso talde eta oraindik “herrikoa al da?” nahiz egiten duten galde, ez ezkerreko ez eskubiko ni ikastolaren alde!


Hasierako hartan ez nongen baina daukat aditua gutxi batzuek beren gain karga dena zutela hartua. Guraso askok bide berdina gero du aukeratua gure umeentzat geure hezkuntza hori ez da delitua, eta aurrera atera izana hori kriston meritua!

Elizan bozketa bat eginda jakin erabaki zala guraso gehiengoan botoaz segitzea lehen bezala. Udaletxeak konpromisoa ere segiko zuala orduan hitzez, gero idatziz orain legezko ez dala, bakarrik falta zaie esatea lapurretan a(r)i ginala!

Olatuakin jolastu ginan eta indar berriz busti ondorioa bistan daukagu eraikuntz berri ta guzti. Ikastolan dabilta herriko hamar umetatik zazpi baina hitzarmen historikoai zer esango eta xapi!, batek bakarrik atera ditu traineruak hainbat zapi!

Beraz egoera berriz ere nahiko itsusia dago ikastolantzat ez da berria sufritu baitu lehenago. Baina aurrera irtengo dala konfiantza osoz nago eta auzolanaren eredu izango degu luzaro, udal makilak indar asko du borondateak gehiago.

Rosi Lazkanoren bertsoak.
(Errikotxia, 2011-03-18)



ikutxa



Ikastola Eguna: sormenaren festa

**Ttuntturroen tolon-tolona-
rekin hasi zen Ikastola
Eguna; DBHko ikasleak
kalez kale ibili ziren, orain-
dik logale zeuden oriotarrak
esnatuz.**

Herriari itzulia eman ondoren, britainiar puntualtasunez sartu ziren kiroldegian, eta ikasleen jaialdiari testigua pasa zieten. Harmailak lepo, ez zen zirrikitu txikienik ere ikusleentzat, eta txalo zaparrada artean hartu zituzten ikastolako joaldunak.

ZOO-rako bisita irudikatzen hasi ziren ikaslerik txikienak: sugeen mugimendu zigzagatsak,

loroen hegaldi dibertigarriak, zebren dantza marraduna, pinguenen ibilera xeblea, kanguruaren salto erraldoiak, tximinoen imintzio barregarriak, krokodiloen letagin zorrotzak eta tigreen orroa beldurgarriak entzun eta ikusi ahal izan zituzten guraso, aitona-amonak, bestelako senide eta bertaratu-tako herritarrek.

Udalarekin lortu berri den hitzarmenagatik eskerrak emateko, ikastolako lehendakari ohiek herriko 16 eragileei oroigarri bana eman zieten, ikusleentzako txalo artean. Eta, segidan, hura festa! Lehen Hezkuntza-

koek zein ederki gogorarazi zizkiguten desagertutako musika-talde eta abeslariak, tartetan Oihana Alkorta ikasle ohiaren abesti hunkigarriaz lagunduta. Michael Jackson-ek burua altzako balu, bera bezain ondo dantzaten duten hamaika zonbi ikusiko lituzke! Duela gutxi gure artean joan den Xabier Letek ere izan zuen bere omenalditxoak, kanela usaineko Habanera abestu baitzuen kiroldegi osoak.

Jaiari amaiera borobila emateko, gurasoek egindako ehundik gora patata tortilla goxo-goxoak dastatu ziren pla-

zoletan emandako hamaiketakoan. ZORIONAK GUZTIOI, LAN BIKAINA!

**Ttuntturroen
tolon-tolonarekin
hasi zen
Ikastola Eguna;
DBHko ikasleak
kalez kale ibili
ziren, oraindik
logale zeuden
oriotarrak
esnatuz**

Ikasle ohiak sarituta

Urola Kostako Udal Elkarteak antolatzen duen enpresa-idea onenen lehiaketan, lehen saria Eurne Carrera ikastolako ikasle ohiaren taldeak jaso du *SUNSTOP*, *Beira fotokromatikoa* ibilgai-luetako lanarekin. Bigarren saria Maite Arruti, Eneritz Mugika, Janire Arrondo eta Ainhoa Illarrendi ikasle ohiak osatutako taldeak irabazi du *JAME S.A.*, *Aparkaleku bilatzailea* lanarekin. Zorionak!

G Puntua

Joan zen maiatzaren 8an, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa abian jarri zen ikastolako aretoan. Goizez eta arratsaldez izan ziren saioak. Arratsaldekoan, hain juxtu, Ibai Esoain oriotarra izan zen garaile 287 punturekin. Donostian bukatuko da txapelketa, abenduaren 18an. Bidean, 26 herritan egingo dituzte saioak, eta 76 bertsolarik hartuko dute parte.

Saharauriarrei elkartasuna

Urtero bezala, Tindufeko kanpamenduetan daudenekiko elkartasun-ekimenak antolatu ditugu. Ikastola aurreko patioan Haima bat jarri zen, eta ikasleak bertara joan ziren saharauriarrei beraien bizitzako hainbat kontu galdetzera. Urteroko ekintza nagusia den janari bilketa ere inoizko handiena izan zen. Antolatzaileek, beste behin ere, ikastolako kide guztioi eskerrak helarazteko eskatu ziguten.

Europar Kooperatiba: II. Batzarra

Joan den ekainaren 21ean, eta bigarren aldiz jarraian, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartearen urteko Ohiko Batzarra ospatu zen ikastolako aretoan. Urteko balantzea egin, eta datozen hilabeteetako lan-ildoak finkatzea izan ziren batzarraren egitekoak.

2009ko ekainaren 13an, Euskal Herriko Ikastolek sortu zuten Europar Kooperatiba Elkartea, Zamudion.

Ibaiaren armiarma sarean harrapatuta gaude. Bere egin gintuen jaio ginenean, eta bere izango gara hiltzen gareneraino. Kasik bizidun urtar ere bagara: ibaitar, itsastar. Ur gazi eta gezen nahasketen testigu, itsasgorak eta itsasbeherak duten jolasaren lekuko. Askotan ezetz uste badugu ere, erraietan daramagu, gure izaeraren parte baita Oria ibaia.

Ingurumen Hezkuntza: ukituz, sentituz



Baina armiarma sareek badi-tuzte zuloak, eta gure ibaiak ere baditu batzuk beltz askoak. Hutsune handiak, zorigaiztoko egiten dutenak. Batzuek berezkoak dituenak; besteak, ordea, handi-handiak, geronek sortu dizkiogunak.

Zulo beltz handi horiek konpondu nahian, ekimen asko egiten dira, IBAIALDE eta AZTERKOSTA kasu.

Honezkero izango dira 18 urte, maixu Mikel eta Joanitoren ekimenez, lehenengo aldiz AZTERKOSTA kanpainen parte hartu genuela. Kanpaina Hezkuntza Sailak bideratu zuen, eta, artean, DBH ezartzeko zegoen ikastolan. Beranduago, urratutako bideari jarraipena eman genion etapa berrian, ekimena DBH-2an kokatuz. Orduz ge-

rozitik, sanikolasak inguruan, urtero joaten gara itsasadarreko bazterrak aztertzeraz, akatsik egin gabe. Marea biziko egunak aprobetxatuz, eta itsasbehera dagoen orduetan, Salmaistitik eta Motondotik hasi, eta Antilla nahiz barra berrirainoko txoko guztiak miatzen ditugu, eguraldia lagun. Ibaira ematen duten isurialdeetan laginak hartu, erriberako flora eta fauna aztertu, hondakinak bildu, laborategiko lana egin...

Aurrerago etorriko zen antzeko planteamendua ibai eta erreketara hedatzeko proposamena, IBAIALDE kanpaina gisa bataiatua, hain zuzen. Planteamendu berriarekin ere zalantza handirik ez genuen izan amuari heltzeko. Geroztik, urtero-urtero, apiril edo maiatz al-

dean, Santio errekararen egoeraren azterketari hutsik gabe ekin diogu, DBH-3ko ikasleak protagonista hartuta.

1992an, Nazio Batuen Erakundeak Rio de Janeiron antolatatu zuen Ingurumen eta Garapenaren Konferentzia. Han adostutako proposamenak dituzte jatorri, hain zuzen ere, bi jarduera horiek. Besteak beste, Rion definitu zen Garapen "Iraunkorra" delako terminoa: gizakiaren eta bera bizi den ingurunearen iraupen osasuntsuaren bermea ahalbidetzen duen garapena. Garapen horrek, gainera, ezingo ditu kolokan jarri datozen belaunaldien premiak.

Gauzak horrela, hezkuntza-komunitateak erantzukizun handia du gizakiaren eta ingurunearen garapen egokiari

dagokionean. Izan ere, belaunaldi berrien onarpena eta haien parte hartze aktiboa ezinbestekoak dira.

Eta zer hobe horretarako, ikasleak errealitatera hurbiltzea baino!

Honezkero izango dira 18 urte, maixu Mikel eta Joanitoren ekimenez, lehenengo aldiz AZTERKOSTA kanpainen parte hartu genuela. Kanpaina Hezkuntza Sailak bideratu zuen, eta, artean, DBH ezartzeko zegoen ikastolan



Aurrera begira, ordea, erronka ez da makala. Gazteek bizi duten ingurune gero eta teknologikoagoak, muturrera iristen ari den individualismoak, eta naturarekiko duten urruntasunak ez du asko laguntzen. Zaila egiten da, gero eta zailagoa, ikasle hauetan sentsibilizazio apur bat piztea

Itsasoaren (AZTERKOSTA) eta ibaiaren (IBAIALDE) egoera aztertzeak aukera ematen du giza jarduerak egiten dituzten kalteak zuzenean ikusteko, naturaz gozatuz, eta ikasleengan errespetuzko jarrerak garatzen lagunduz.

Oria itsasadarreko lokatze-tan (ikasleentzat fangotan) bizi izandako peripeziak, galdutako katiuskak, bildutako zaborrak, kateatutako hankak, zikindutako arropak, irakasleen kotxeetan egindako bidaia surrealistikak... ikasle eta irakasle askoren oroimenean geratu dira betiko.

Eta zer esanik ez Santiago errekan egindako lanaz, eta han gertatutako pasadizoez: xomorro bilketa, parametro fisiko-kimikoen neurketak, uretan egindako aurkikuntza harrigarriak, baserriz baserri erreka itxian barna izandako abenturak...

Aurrera begira, ordea, erronka ez da makala. Gazteek bizi duten ingurune gero eta teknologikoagoak, muturrera iristen ari den individualismoak, eta naturarekiko duten urruntasunak ez du asko laguntzen. Zaila egiten da, gero eta zailagoa, ikasle hauetan sentsibilizazio apur bat piztea. Baina zailtasun horiek gero eta garbiago erakusten digute ikastolan zein etxean ildo beretik jarraitzea behartuak gaudela, proiektu berriei helduz, eta, batik bat, naturarekiko errespetua eta maitasuna transmitituz. Nahiz eta askotan gizarteak agintzen digun korrante nagusiaren kontra aritu behar izan, eta maiz nekeza izan bidea, merezi du. Gu horretan gaude. Azken batean, esaera zaharrak dioten bezala: Zer ikusi, hura ikasi.

Izan ere, teknologia berrien, individualismoaren eta artifizialtasunaren sare berria,

modernoia, handia izanda ere, ibaiaren sare zaharra aspaldikoa da. Eta antzinakoa izanda, kateatuta gaitu. Horretaz ohartzen gara, bertatik bertara, *in situ*, behaketak eta ikerketak egiten ditugunean; edota, besterik gabe, ibai eta itsaso bazterrean pasieran gabiltzanean. Gazteen aurpegi alaiak ikusi besterik ez dago, lokatze-tan edo errekan dabiltzala. Argi eta garbi: txuri-beltzezko sarearen parte dira.

Beraz, helduak gara aurrenak balore hauek barneratu behar ditugunak, gure egin behar ditugunak; sareari kolore biziak eman, eta zulo beltzei erreparatu behar diegunak. Izan ere, denon artean eta bakoitzak bere txokotik, garapen eredu berri bat aurki genezake, etorkizuneko belaunaldien premiak kolokan jarri gabe. Eta aurkituko dugu!

“Haurra hezteko, kirola eta musika errekurtsio bikainak dira”

Xabier Lizaso pianojolea ikastolako aretoan izan dugu. Pianoa eta musika klasikoa lagun, 3 urtetik hasi eta 12 urte bitarteko ikasleak jolasean aritu dira, musikaz gozatuz eta musika ikasiz. Metodo atsegina, partehartzailea eta praktikoa erabiltzen du Lizasok ikasleak musikara erakartzeko. Guk berarekin hitz egiteko tartea hartu dugu.

Zein izan da zure ikasketa ibilbidea?

Ni jaio nintzenean, aitak konpondutako piano bat zegoen etxean; eta, tirriki-tarraka, pianoarekin jolasten ibiltzen nintzen.

12 urterekin Donostiako kontserbatorioan hasi nintzen ikasten, eta hura ez zitzaidan batere gustatu: kartzela izandako eraikuntza bat zen, erabat iluna, eta nik ez nuen musika ikasi nahi. Baina erraztasuna nuen nonbait, eta zailtasun handirik gabe joan nintzen aurrera. 15 urterekin irakasle aldaketa izan nuen, eta gauza erabat aldatu zen. Orduan erabaki nuen pianojolea izatea. Nire gurasoek ez zuten nahi, baina nik aurrera jarraitu nuen nire ideiekin. Beka onak lortu, eta Sevillara joan nintzen; han, ordea, ez nintzen batere gustura egon. Halere, esperientzia guztietatik ikasten da zerbait, eta hark indarra eman zidan kanpora joateko: Poloniara joan nintzen. Hura ikaragarria izan zen. Jo eta lo geratu nintzen, kontzertuetara zenbat jende joaten zen ikusita!

Nirekin ikasten zuten batzuek kontatu zidaten eskoletan kontzertuak ematen zituztela. Hiru urte egin nituen han, eta musika txiki-txikitatik lantzen zutela ikusi



elkarrizketa

nuen. Ez nuen horrelako kontzertuetan parte hartu izan, baina kontziente naiz nire buruan jaso nituela ideia haiek guztiak.

Musika klasikoa da zure egitekoaren oinarri. Zer dela-eta?

Lanean nonbaitetik hasi behar, eta hori ideia ona zela bururatu zitzaidan. Kutzarekin jarri nintzen harremanetan, eta froga egingo genuela esan zidaten. Dagoeneko 17 urte daramatzat honetan. Ikasleek musika klasikoarekin gozatzea da helburua, klasikoarekiko dauden aurreiritzi okerrak baztertzea, eta musikarekiko interesa piztea.

Zure kontzertuek makina lagunengan arrastoa utziko zuten, ezta?

Bai, esperientzia positibo askoren berri izan dut. Jende asko hasi da pianoa ikasten nire kontzertu baten ondoren; utzita zutenek berriro hartu dutela ere jakin izan dut. Agian txikikeria irudituko zaizu, baina ikastolako 6. mailakoek sekulako poza eman zidaten lehengoan. 3. mailan

zeudenean *Gloria* izeneko kantua bat erakutsi nien, eta, aurreten, hiru urte geroago, nire kontzertua hasi aurretik kantatu egin zidaten.

Irakasleok, nola landu behar harko gure musika ikasgelan?

Oso denbora gutxi dago musika ikasgairako. Horregatik, gorputz perkusioa, gorputz espresioa eta kantua bakarrik sartuko nituzke; eta konbinatuz, saio erakargarriak sortu.

Nola bultzatu haurra musikara, eskolaz kanpoko mila ekintza eskura dituenen?

Kirolean aritzen denak astero partida bat jokatzeko, egindako lanaren erakusleho gisa. Musikak ere hori behar du. Aukerak sortu behar dira haurrek egiten dutena erakusteko; musika kalera gehiago atera behar dela uste dut.

Zer-nolako garrantzia du musikak haur baten garpenean?

Nire ustez kirola eta musika haurra hezteko errekurtsio bikainak dira, asko erakusten dute. Nahiz eta gero bide horietatik jarraitu ez, irakaspen

“Kirolean aritzen denak astero partida bat jokatzeko, egindako lanaren erakusleho gisa. Musikak ere hori behar du. Aukerak sortu behar dira haurrek egiten dutena erakusteko; musika kalera gehiago atera behar dela uste dut”

bikainak ematen dituzte: beste entzuten, besteak kontuan hartzen, konstanteak izaten, epe luzera begiratzen, eta lan txukun egiten erakusten dizute.



Ez adiorik, neska-mutilak!

Bi urterekin hasi, eta hamasei urte egin arte ikastolan izan zaituztegu, eta agurtzeko garaia iritsi zaigun honetan zenbat oroitzapen, zenbat bizipen... Arrastoa utzi duzue, asko eman diguzue, eta beste hainbeste jasoko zenutelakoan gaude.

Hemendik aurrera habia utzi, eta bakoitzak bere bidea hartuko du. Baina ez ahaztu hemen irakatsitakoak, ez ahaztu hemen ikasitakoak, ez ahaztu betiko izango zaretela IKASTOLAKIDEAK.

Bazoazte guretik egizue hegan bide berrien bila hegaztien gisan.

Balia ezazue munduko eskolan gure iturritikan duzuen edan.

Eta non-nahi egonik ez ahaztu sekulan baduzue txoko bat gure bihotzetan

Agenda

UZTAILAK 1, ostirala
18:30
3. triatloia

